



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko maiatzaren 20a

67. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzekoa. Akats zuzenketa (2. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Interpelazioa, talentua sortzeko eta erakartzeko politika fiskalari buruzkoa. Ainhoa Unzu Garate andreak aurkeztu du (3. or.).

—Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da txosten bat eman dezan, kalkulatzeko eta birdimentsionatze aldera Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak proiektuak ebaluatzeko beharko dituen langile eta baliabide material egokiak. Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkeztu du (3. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Galdera, “FORU” Justiziar, Giza Eskubideei eta Demokraziari buruzko Nazioarteko Zikloa elDiario.es-ekin elkarlanean antolatzeari buruzkoa. Marta Álvarez Alonso andreak egin du (5. or.).

—Galdera, bizigarritasunari buruzko Foru Dekretuaren idazketa berriari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (6. or.).

—Galdera, Aroztegia Jauregiaren Udalez gaindiko Plan Sektorialaren Konpentsazio Batzordeak edo Palacio de Aroztegia SLk aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamari-que jaunak egin du (6. or.).

—Galdera, N-121-A errepideko euskarazko errotulazioari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamari-que jaunak egin du (7. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzekoa.

AKATS ZUZENKETA

Akats bat atzeman da 2022ko maiatzaren 16ko Nafarroako Parlamentuko Mahaiaren erabakian, zeinaren bidez xedatzen baitzen babestutako etxebizitza ordainerrazen parke bat Nafarroako Foru Komunitatean sustatzeko Foru Lege proposamenari (10-22/PRO-00001) zuzenketak aurkezteko epea luzatzea. Aipatu erabakia 2022ko maiatzaren 17ko 64. Nafarroako Parlamentuko

Aldizkari Ofizialean argitaratu zen. Hona hemen zuzenketa:

Erabakiaren lehen puntuan, honako hau dioen tokian: "2022ko maiatzaren 23ko eguerdiko hamabiak arte", honako hau esan behar du: "2022ko maiatzaren 26ko 17:30ak arte".

Iruñean, 2022ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Interpelazioa, talentua sortzeko eta erakartzeko politika fiskalari buruzkoa.

AINHOA UNZU GARATE ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Garate andreak aurkezturiko interpelazioa, talentua sortzeko eta erakartzeko politika fiskalari buruzkoa (10-22/ITP-00014).

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapidetzea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Garate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, talentua sortzeko eta erakartzeko politika fiskalari buruzko honako interpelazio hau aurkezten dio Nafarroako Gobernuko Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariari, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Iruñean, 2022ko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da txosten bat eman dezan, kalkulatzeko eta birdimentsionatzeko aldera Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak proiektuak ebaluatzeko behar dituen langile eta baliabide material egokiak.

AINHOA AZNÁREZ IGARZA ANDREAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Aznárez Igarza andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita txosten bat eman dezan, kalkulatzeko eta birdimentsionatzeko aldera Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak proiektuak ebaluatzeko behar

dituen langile eta baliabide material egokiak (10-22/MOC-00050).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

MOZIOAREN TESTUA

Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkar-teari atxikitako foru parlamentari Ainhoa Aznárez Igarza andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako mozio hau aurkezten du, maiatzaren 26ko Osoko Bilkuran eztabaidatu eta bozkatzeko.

Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko premiazko neurriak hartzen dituen apirilaren 13ko 1/2022 Foru Lege-dekretuak, 3.2 artikulua b) eta c) apartatuetan, ezartzen du ingurumenaren arloko proiektu jakin batzuegitarako jendaurreko informazioaren inguruko izapide administratiboak eta epeak murriztea eta erraztea, "energia berriztagarrien proiektuei buruzko prozedurak bizkortzeko neurriak" deitutakoekin bat. Era horretan, ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egiteko betebeharrak kentzen da 75 MW baino gutxiagoko proiektu eolikoetan eta 150 hektarea baino gutxiago okupatzen duten proiektu fotovoltaikoetan, ingurumen-sentsibilitate baxuko eta ertaineko eremuetan.

Gerra pizteak eta Europak herrialde erasotzaile batzuekiko, Errusiar Federakundea kasu, duen mendekotasun energetikoaz kontzientzia-hartzeak energia berriztagarrien proiektuak edukitzeko beharra areagotu badute ere, hori ezin da egin energia enpresa gutxi batzuen eskuetan metatzeko eredu bera erabiliz eta ezin dira kendu uda-

lei kontsultatzeko faseak eta jendaurreko aldia, non alegazioak aurkeztu ahalko liritekeen proiektuen aurka, zeinek askotan beste garapen ekonomikoekin talka egiten duten, esate baterako ekoturismoan oinarritutakoak.

Ingurumenaren aldetik jasangarriak diren proiektuak azkar ezartzea bateragarri egiteko foru lege-dekretuak ezartzen duen aurreikuspenarekin, alegia, jokoan dauden interes ezberdinak egoki ebaluatu beharra eta, gainera, parte-hartze publikoa babestea Espainiako Erresumak sinatutako nazioarteko hitzarmenetan eta nazioarteko estandarretan nazioarteko estandarretan ezarritakoari jarraikiz, honako erabaki proposamena aurkezten dugu:

1- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuari premiazko neurriak hartzen dituen apirilaren 13ko 1/2022 Foru Lege-dekretuak aipatzen dituen proiektuak, egokitasun eta eraginkortasunez, emanen diren txostenen kalitatea urritu gabe.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 6an

Foru parlamentaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, “FORU” Justiziari, Giza Eskubideei eta Demokraziari buruzko Nazioarteko Zikloa eDiario.es-ekin elkarlanean antolatzeari buruzkoa.*MARTA ÁLVAREZ ALONSO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Marta Álvarez Alonso andreak aurkezturiko galdera, “FORU” Justiziari, Giza Eskubideei eta Demokraziari buruzko Nazioarteko Zikloa eDiario.es-ekin elkarlanean antolatzeari buruzkoa (10-22/PES-00157).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikia dagoen

Marta Álvarez Alonso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Maiatzaren 6an “FORU” Justiziari, Giza Eskubideei eta Demokraziari buruzko Nazioarteko Zikloa egin zen, Nafarroako Gobernuak eDiario.es-ekin elkarlanean antolatua.

1.- Nork erabaki du eDiario.es-ekin elkarlanean egitea?

2.- Nolakoa izan da elkarlan hori?

3.- Zer kostu ekarri dio Nafarroako Gobernuari?

4.- Zer partidaren kontura ordaindu da?

5.- Kosturik izan bada, zehaztu finantzaturako kontzeptuak eta nori finantzatu zaizkion kostu horiek.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 10ean

Foru parlamentaria: Marta Álvarez Alonso

Galdera, bizigarritasunari buruzko Foru Dekretuaren idazketa berriari buruzkoa.

MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, bizigarritasunari buruzko Foru Dekretuaren idazketa berriari buruzkoa (10-22/PES-00158).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun dezan:

Bizigarritasunari buruzko Foru Dekretuaren idazketa berriari dagokionez, hauxe jakin nahi dut:

- Zertan da haren prestaketa?

- Zer denbora aurreikusten da Nafarroako Gobernuaren onespenerako?

Iruñean, 2022ko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

Galdera, Aroztegia Jauregiaren Udalez gairikoa Plan Sektorialaren Kontentsazio Batzordeak edo Palacio de Aroztegia SLk aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Aroztegia Jauregiaren Udalez gairikoa Plan Sektorialaren Kontentsazio Batzordeak edo Palacio de Aroztegia SLk aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioari buruzkoa (10-22/PES-00159).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkeztu dituzkie Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu dituzan eta idatziz erantzun dakizkion:

1.- Egia al da Aroztegia Jauregiaren Udalez gairikoa Plan Sektorialaren Kontentsazio Batzordeak edo Palacio de Aroztegia SLk ondare-erantzukizuneko erreklamazio bat aurkeztu diotela Nafarroako Gobernuari zerbitzu publikoen funtzionamendu txarragatik, zehazki segurtasun zerbitzuen funtzionamenduagatik, hain zuzen ere Foruzaingoaren jarduketagatik?

2.- Zenbaterainokoa da Aroztegia Jauregiaren Udalez gairikoa Plan Sektorialaren Kontentsazio Batzordeak edo Palacio de Aroztegia SLk aurkeztutako ondare-erantzukizuneko erreklamazioa?

Iruñean, 2022ko apirilaren 12an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

Galdera, N-121-A errepideko euskarazko errotulazioari buruzkoa.

ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko maiatzaren 16an egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea N-121-A errepideko euskarazko errotulazioari buruz Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera (10-22/PES-00160).

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2022ko maiatzaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

GALDERAREN TESTUA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu ditzan eta idatziz erantzun dakizkion:

Nafarroako Arartekoaren Q21/935 Ebazpenean honakoa esaten da:

a) Lurralde Kohesiorako Departamentuari gomendatzen zaio N-121-A errepidean (Iruñetik Gipuzkoako mugaraino) izen ofizial elebiduna duten biztanleguneei buruzko seinaleetan aipatu izena ager dadila.

b) Lurralde Kohesiorako Departamentuari gomendatzen zaio aipatu errepidean, eremu euskaldunen diren informaziozko bide seinaleetan errotulazioa elebitan jar dadila,

c) Lurralde Kohesiorako Departamentuari iradokitzen zaio aipatu errepidean, eremu mistoan diren informaziozko bide seinaleetan errotulazioa elebitan jar dadila eta

d) Lurralde Kohesiorako Departamentuari gomendatzen zaio aipatu errepidean diren informaziozko bide seinaleetan "Frantzia" izena erabil dadila "Francia" izenarekin batera.

Nafarroako Arartekoak Nafarroako Parlamentuari igorritako 2021eko txostenean adierazten da Lurralde Kohesiorako Departamentuak ez diela erantzun aipatu gomendioei.

Horrenbestez, gai hauei idatzizko erantzuna ematea eskatzen dugu:

– Lurralde Kohesiorako Departamentuak zergatik ez die erantzun Nafarroako Arartekoaren gomendio horiei?

– Zergatik jarri da N-121-A errepideko errotuluetan (bertako tarte nagusia eremu euskalduneko izaki) "Francia" eta ez "Frantzia", nahiz eta Euskaltzaindiak 2019ko azaroaren 29ko 38. arauan eguneratuta eduki munduko estatuen euskarazko izenak eta bertan ezarri Frantziako Errepublikaren euskarazko izena "Frantzia" dela?

– Zergatik ez zaie heldu Euskaltzaindiaren gomendioei izendapenei dagokienez, Euskarari buruzko Foru Legearen 3. artikulua bigarren eta hirugarren apartatuek ezartzen dutenari jarraikiz? Izan ere, honela adierazten dute: "2. Botere publikoek hizkuntz araua errespetatuko dute, Foru Lege honetan xedatutakoa eta hura garatzen duten xedapenen ondorio diren jarduketetan" eta "3. Hizkuntz arauen ezartze ondorioetarako, Euskaltzaindia izanen da erakunde aholku-emaile ofiziala, eta berari eskatuko dizkiote botere publikoek aurreko atalean ezarritakoa betetzeko beharrezko zaizkien txosten eta diktamenak."

Iruñean, 2022ko maiatzaren 12an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

